rbilen auzia
nsarte-Orian

6an ireki zuten Eroski etxearen Urbil merkataritza
taritza gune berria Usurbilgo lurretan kokatu dute,
e-Oriatik gertuago dago.
ko herritarrek aspaldi ezagutu zuten merkataritza
o egitasmoa, eta duela hiru urtetik eguneroko
n dute Eroski eraikitzera zihoan saltokia. Jakina, aldeko
ritzirik ez da falta izan azken hilabeteetan, eta ez orain
n, argi esan beharra dago Lasarte-Oriako elkarte
ka handiz hartu dutela.

GARI GARAIALDE

Urbil merkataritza gunearen sarrera.

CTA, OSTADAR KULTUR ETA
rteak saltoki handirik erai-
mena abiatu zuen 1998an.
enez, Urbil eraikitzeko lu-
gaizki egin zen, eta horre-
zitegi Nagusira jo zuen tra-
ko.

strazioarekiko
uzibidea

kiaran abokatuak darama,
Zri esan dionaren arabera,
o hiru urtetan behintzat ar-
go Asteasuain industrialde-
bil, eta han eraiki ahal iza-
urbilgo Udalari eskatu zion
kalifikazioa aldatzeko», dio
katuak. Usurbilgo Udalak
20an onartu zuen aldake-
ta hori, baina Jaurlaritzaren oniritzia behar zen aurrera egin aurretik. «Jaurlaritza une horretan Gizpuzkoako zazpi lekutako merkataritza beharrak aztertzen ari zen, eta ikerketa bukatua ez zuenez, lurraldearen kalifikazio aldaketari ezezkoa eman zion», azaltzen du ostadarreko abokatuak. Hala ere, tramitazioak aurrera egin zuen, eta Gipuzkoako Foru Aldundian «erabaki korapilatsua» hartu zuten: aldaketa onartu bai, baina Jaurlaritzaren azken txostenaren zain geratu ziren, ezezkoa izanez gero aldaketa bertan behera uzteko. «Hori guztia 1997ko abenduaren 23an jazo zen», dio Mazkiaranek. Gipuzkoako Merkataritza Federazioak eta Ostadar KKEk auzitara jotzea erabaki zuten orduan, eta Foru Aldundiak hartutako erabakia inpugnatu egin zuten. «Alegia, tramiteak utzi digun zirrikituan sartu gara, baina akatsa aurretik zetorren, gure ustez Jaurlaritzaren txostenak debekatu egiten baitzuen lurraren kalifikazioa aldatzea», gaineratzen du abokatuak.

Administraziarekiko auzia erabakitzen zen bitartean, merkataritza gunea eraikitzeko lanek aurrera egin zuten, eta ireki ere egin dute. «Legeak arrazoi ematen badigu, hau da, epaia gure alde ateratzen bada, Urbil itxi beharko lukete».

«Herriaren aldeko ekimena»

Lasarte-Oriako beste elkarte askoren antzera, Ostadar ez zegoen lasai herrian saltoki handi bat eraikitzera zihoazela jakinda, eta lege arlora jotzea erabaki zuen. «Aurrez, beste hainbat lekutan ezarrita ziren horrelako merkataritza guneak, eta haietan gertatutakoa hartu genuen aintzat», azaltzen du Ostadarreko bozeramaile batek. Saltoki handien ondorioz, herriko merkataritza txikiak eta kaleko giroak kalte handiak pairatzen dituztela diote Ostadarren, «eta jakina, gure herriarentzat ez genuen hori nahi». Erabaki hori hartu aurretik, Lasarteko elkarte horrek ikerketak eskatu zituen, Urbilek eragingo zituen ondorioak zehatz-mehatz ezagutzeko; ikerketak antza, ez ziren nolanahikoak izan. Baionako Merkataritza Ganberak eta Jose Allende Sarrikoko Unibertsitateko katedradunak egindako lanak aztertu zituzten, eta «zerbait» egin behar zela pentsatu zuten. Urbilek eragin dituen kalteak hartzen ditu ahotan Ostadarreko bozeramaileak: «Bere ateak zabaldu aurretik jada eragin zuzenak izan ditu Urbilek herriko hainbat lokaletan, salneurriek behera egin dutelako».

> «Dagoeneko salgai leloa herriko ate askotan irakur daiteke. Saltoki handi honek Lasarteko gizarte bizitza jaten du»

Bi aste ere ez dira bete Eroskiren merkataritza gunea ireki zenetik, eta jada herrian hori argi suma daitekeela dio Ostadarrek: «Azken egunetan denda mordoa jende gutxirekin ibili da, eta dagoeneko herrian salgai leloa ate askotan irakur daiteke. Saltoki handi horrek dena jaten du, eta batik bat, Lasarte-Oriako gizarte bizitza».

Eroskiren ikuspuntua

Aurretik esanda doa Eroskik oso bestela ikusten dituela gauzak. Eroskiko komunikazio arduradun Iosu Sanzek azaldu duenez, «Ostadarrek eskubidea dauka legeen bidea jorratzeko, baina gauzak lege barruan egin behar dira, eta alde horretatik, gu oso lasai gaude». Eroskiko bozeramaileak dioenez, Urbilek enplegua sortu du eskualdean, «eta kontuan izan behar da Urbilen diharduten gehienak Lasarte-Oriakoak eta Usurbilgoak direla». Uka ezina da Urbilen Lasarteko gazte ugari daudela lanean; Izan ere, hipermerkatuan soilik 240 gazte dabiltza lanean, eta Urbil osoan 600 inguruk aurkitu dute lana.

Dena den, Eroskik oso argi dauka lehia gogorra duela nazioarteko beste kate batzuekin, "eta jakin bagenekigun gu izan ez bagina, beste edozeinek jarriko zuela merkataritza gunea Donostialdeko inguru horretan». Nolanahi ere, begi-bistakoa da Garbera merkataritza gune izugarria (Eroskirena) Urbiletik 10-15 kilometrora besterik ez dagoela, eta horrek ere Urbil irekitzeko beharra zalantzan jartzen du. «Garbera Donostiako eta Bidasoa aldeko herritarrentzat pentsaturik dago, eta Urbilek, aldiz, kokapen egokia du Zarautz aldeko biztanleei begira. Edonola ere, baliteke Donostialdekoek ere Urbilera jotzea».

Urbil Lasarteko erdigunetik gertuegi dagoela diote herriko dendariek eta beste elkarte askok, eta horrek min handiegia egingo diela. Hala den galdetuta, Eroskiren komukazio arduradunak honela erantzun du: «Begira, Donostiako erdigunetik Garberara zortzi minutu baino ez daude autoz, Alde Zaharretik Amararaino oinez duzun denbora berbera». Alegia, Sanzek gertutasuna kontua erlatibizatu egiten du.

Nolanahi ere, denborak baino ezingo du frogatu Urbilek luzera mesede edo kalte egingo dien alboko herriei, eta herritarrei orohar.

GARI GARAIALDE

Urbil saltokiko hainbat denda.